

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernua indarkeria matxistaren aurka elkartu da

*Barcina Lehendakariak, Jiménez lehendakariordeak eta Torres, Goicoechea eta Astiz kontseilariak hartu dute parte Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguneko elkarretaratzeetan*

Viernes, 25 de noviembre de 2011

Yolanda Barcina Angulo Nafarroako Lehendakariak, Roberto Jiménez Alli lehendakariordeak eta Elene Torres Miranda, Lourdes Goicoechea Zubelzu eta Anai Astiz Medrano kontseilariak indarkeria matxistaren aurkako elkarrateratze isiletan hartu dute parte gaur eguardian, Emakumeenganako



Lizarrako elkarrateratze isila.

Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta.

Lehendakaria Lizarrako elkarretaratzean izan da, udalerrri honetara joan baita gaur goizean Ingurumeneko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Fundazioaren egoitza eta laborategi berriak inauguratzera. Bertan izan dira, era berean, Lourdes Goicoechea eta Anai Astiz kontseilariak, baita parlamentuko hainbat ordezkari, Begoña Gazuna Lizarrako alkatea eta udaletxeko beste hainbat zinegotzi ere.

Elkarretaratzeak hamar minutu inguru iraun ditu eta ondoren urtean zehar (urtarriletik azarora) izandako biktima guztien izenak eta jatorriak irakurri dituzte.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuaren (NBFi) bidez, Iruñako Vínculo plazarako egindako deialdian, Roberto Jiménez eta Elena Torres izan dira, baita Sara Ibarrola Intxusta NBFiko zuzendaria, Nafarroako Gobernuko beste kide batzuk, Alberto Catalán Higuera Parlamentuko lehendakaria, Elma Sáiz Delgado Gobernu ordezkaria eta alderdi politikoetako ordezkariak ere. Ekitaldian ehun lagun inguru bildu dira.

### Torres kontseilariaren hitzak

Espanian, aurren, euren bikotekide edo bikotekide ohien esku hil diren 54 emakumez oroitu da gaurko egunean Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilaria, baita indarkeria fisiko eta psikologikoa jasaten duten emakumez ere, eta "emakumeak apaldu eta iraintzen dituztenak" salatzeraz adoretu ditu, "euren ekintzak zigorrik gabe gera ez daitezen".

Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institututik lanean jarraituko dutela adierazi du kontseilariak arazo larri honi aurre egin eta biktimei laguntza eskaintzeko. Berehalako neurrien artean, Torresek aurreratu du 2012. urtean genero-indarkeria jasaten duten emakumeen arretarako taldeak jarriko direla abian Lizarran eta Tuteran. Helburua biktimen arretarako sare espezializatu eta integrala eratzea da emakumeek laguntza behar duten tokian bertan jaso dezaten. Era berean, Nafarroako Gobernuak larrialdi zentroak, harrera etxeak eta tutoretzapeko etxebizitzak sostengatzen jarrituko duela adierazi du Torresek.

Herritar ugari hartu du parte elkarretaratze isilean. Bost minutuko iraupena izan du eta bertaratutakoen txalo artean amaitu da.

### **1.050 salaketa Nafarroan**

Torresek azaldu duenez, urriaren 31 arte 1.050 salaketa aurkeztu dira Nafarroan indarkeria matxistarekin lotuta. Gehienak emakume gazteek jarriak dira. “Honek zerk huts egiten duen hausnartzera eraman behar gaitu”, adierazi du.

Kontseilariak beste indarkeria mota batzuk ere aipatu ditu, besteak beste, sexu esplotazioa, emakume eta nesken salerosketa edo prostituzioa eta zentzu honetan gogoratu du Nafarroako Gobernu arlo honetan lanean diharduela sexu esplotaziorako emakumeen salerosketaren aurkako Nafarroako foroaren bidez.



Iruñako elkarrateratze isila.